

Astekaria

**Z  
E  
R  
B  
I  
T  
Z  
U  
A**

elgoi

**BARRUAN  
EZKONTZEI  
BURUZKO GEHIGARRI  
BEREZIA**



**Balego,  
balego...**


**Z  
E  
R  
B  
I  
T  
Z  
U  
A  
H**  
PROBINTZIALA  
10 N. - 14 N. - 24 N.  
NAZIONALA EGUNERDIAN  
IRLAK - NAZIOARTEKOA  
ZERBITZU ZUZENAK  
KORRESPONDENTZIA  
ERRENBOLTSOAK  
BESTE PLAZA BATZUK  
GESTIOA - FIJOA - BALIJAK  
ENTREGA BAIEZTAPENA  
EROSKETAK  
IBILGAILUEN ALOKERA

**300 banaketa puntu baino gehiago Espainian  
Nazioarteko zerbitzua munduko edozein tokitara**



Ermuaran Bide, 16 - 2 · ELGOIBAR · Tel - Faxes: (943) 74 40 54

MEZULARIAK  
**GURIA** EXPRESS  
PREMIAZKO GARRAIOA  
"Garraioaren boutique-a"



**GARATE**



Levi's Denda Baimendua



elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12  
Faxa: 74 37 04

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

**PUBLIZITATEA:**

Myriam Aldazabal.

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementeria.

**ADMINISTRAZIOA:**

Amaia Martin,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Irati Agirreazaldeggi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.700 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-  
1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



luzna fundazioa  
Fundación luzna

# ZENBAT BURU

## HAINBAT ABURU



# Hazi eta hezi

**E**txeko jauntxoak dira, nahi duten guztia daukate. Jakina, gure seme-alabez dihardut. Baina ematen al diegu benetan behar dutena eta guregandik espero dutena, hots, denbora, maitasuna, portaera arauak eta nortasun ereduak? Hainbat adituk esaten dutenez, gaur egungo haurrek bere gurasoekin egon nahi dute. Guk, ordea, gero eta asti gutxiago dugu beraien nahi hau betetzeko. Hutsune honek dakar telebista eta bideojolasak euren ihesbide bihurtzea.

Bestalde, azkenengo urte hauetan guraso eta seme-alaben arteko komunikazio giroa aldatzearen lekuko eraginkorrrak gara. Gaurko gurasook ez dugu gogoko agintea helburu nagusitzat zuen gure haurtzaroko heziketa eredu hura. Leku gutxiago du orain aginteak, eta gehiago elkarrizketak. Aitzitik, ez da batere erraza bide egokiena asmatu edota oreka lortzea. Eskema zaharrak alde batera utzi ditugu baina ez gure gauza egokiagoak eta eraginkorragoak izan daitezkeen beste berri batzuk eraikitze-ko. Gure seme-alabak hutsune horretaz ohartzen dira eta ez dute erreferentziarik bere bizitzan zehar aritzerakoan.

Azken belaunaldietako gurasoei arazo berri bat sortu zaie gure familia giroan: gure seme-alabekin egoteko denborarik eza. Sarritan gurasoen eta haurren beharrak ez datoz bat, besteak beste, pairatzen ari garen bizimodu urduria dela

eta. Soluzioa ez datza bizitzaren kalitatea hobetzeko egin behar dugun lanari uko egitean, baizik eta geratzen zaigun astialdi murriztak geure haurrekin ematean. Gurasoek haurtzaroan izan ez genituen aukerak gure seme-alabei eskaini nahi dizkiegu, maiz haurrak direla ahaztuz eta, konturatu gabe, indarkeriaz, konpetentziaz eta berekoikeriaz beteriko gizakiak sortzen ari garela. sotilak eta egizaileak izaten erakutsi beharrean.



Izan ere, gurasook gure rola aztertu behar dugu geure haurren eredu garela kontuan izanik. Ahal dugun denborarik gehiena iragan behar dugu seme-alabekin. Horrela ekidingo ditugu komunikabideen eta inguru sozialaren bidez bereganatzen dituzten hainbat portaera oker.

Aipatutako komunikabide hauen artean nolabaiteko arreta berezia jarri behar zaio telebistaren eraginari. Zer esanik ez, gaur egun ez dago telebista gabeko etxerik, bezero sutsuenak bereziki haurrak izanik. Hori dela eta, gakoa ez da telebista ikusi behar den ala ez, baizik eta haurrekin batera aztertzea azaltzen diren pelikulak... zuzena eta egokia dena eta ez dena bereizten ikas dezaten.

Aitari eta amari seme-alabekiko dagokien maitasun, errespetu eta samurtasunez beteriko heziketaren eraginez gizaki ziur, erantzule eta askeak lortuko ditugu.

**Nekane Aranburu**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



## ? GALDERAK

**- Zergatik ez dator aurtan Eibarko Musika Banda Trinitate jaietan?**

- Kultur teknikariak esan digunez, nagusien Tanborrada larunbat gauean denez, haurrena igande eguerdira pasa behar izan dute. Beraz, Tanborrada eta Bandaren kalejira ezin zituzten batera jarri. Alabaina, Eibarko Banda beste dataren batean ekartzeko asmoa dutela esan digu.

## KEXAK

**“Elgoibarko anbulategira joan beharra izan nuen eta medikuak euskaraz ondo ez zekienez, erdi euskaraz erdi erdaraz hitz egin behar izan genuen. Harrera mahaira hurbildu eta lau andrazkoetatik inork ez zekien euskaraz. Ederra harrera mahaia! Non dira euskaldunon hizkuntz eskubideak?”**

## TXALOAK

Herri Eskolako **“Azeriak”** futbol taldekoek Athletiks eta Errealaren arteko **derbyrako sarrerak** eman zizkien irakaslea txalotu nahi dute. Halaber, 4. mailako ikasleek **gozogintzako irakaslea** txalotu nahi dute benetan postre goxoak egiten irakatsi dielako.

## ESKUTITZAK

### Gazte Asanbladak **BARREN** aldizkariari

**1** 51. zenbakiko BARRE-Neko “Drogekin bizitzen jakin behar” erreportaiari buruz, argi utzi nahi dugu lehenengo zatia, heroina azaldu zenetik Errotaxo sortu zeneraino, gertatu zena manipulatzeko duen zabor desinformatiboa dela. Elkar gaizki pegatutako datu osagabeen puzzle bat da, 1977tik 1986ra, 1985ra bueltatuz, gero 1983ra, 1987ra, 1988ra 1990erarte.

Lehenengo pasarteak asmakizun hutsa da. Zer zerikusi du heroinak artikulua izenez aipatzen ez duen Gaztetxearen sorrerarekin? Nondik ateratu dute heroinarekin talde marjinalak eratu zirela eta hauek lokal baten beharra ikusi zutela? Udaletxearekin borroka, lokala eduki baino lehenagotik zetorren, bestela ez genuen okupatuko. Kontzertuak eta txarrek antolatzea jendea gerturatu zedin zen eta ez alderantziz. Gure jarrera argia zen heroinaren aurrean. Ez genuena onartzen, drogen inguruan zegoen eta dagoen hipokresia da. Eta erreportai osoan zehar egoera hartan Udaletxeak izan zuen erantzukizunari buruzko datuak falta dira, baita polizia mota ezberdinen ekintzei buruzkoak zein narkotrafikoan sartuta zeuden hainbat enpresariarena ere, etab.

Laburbilduz, ez du sosik ere balio kazetalarerreportaia bezala, nahiz eta errealitatea ezkutatu eta kontzientziak lasaitzeko balio duen.

**Elgoibarko Gazte Asanblada**

### Gehiegi eskatzea al da?

**N**oizean behin, aldizkari honetarako bertsoak egiten ditut, pozik gainera. Baina hori ez da arazoa. Izenpetzea, baikik.

Nire gurasoek Ion izena jarri zidaten, I-rekin eta bi silabatako izena bailitzan. Orduan, ez dut ulertzen zergatik, baina beti, nahiz eta behin eta berriz nire izena I-rekin jartzeko esan, J-rekin idazten didaten erredakzioan (BARRENen), Jon alegia.

Badakit, umekeria edo tontokeria bat bezala uler dezakeela norbaitek eta ulertzen dut, baina kontxo! Hiru urtean zehar bertsoak entregatzera noan bakoitzean berdina esan beharra ere...

Beraz, beste luzamendutan ibili gabe agurtzen naiz, hori bai, nire eskaera behingo batean beteko den esperantzarekin.

**Ion Garate**

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





**S**an Pedro egunean 1961ean ateratako erretratu hau **Ana Mari Igartuak** laga digu. Parrokiako koroa osatzen zutenak dira argazkikoak. San Pedro eguna izanik, mezan abestera igo ziren San Pedrorra. Egun polit horren oroigarri argazki hau atera zien Ojanguren argazkilari eibartarrak.

Atzean tente: **Rafael Urrusolo, Pedro Osoro, Juanito Irureta, J. M. Betelu, Andoni Alberdi, Jose Zubiaurre, Luis Mari Barrenetxea, Jesus Mujika**

**apaiza, organista eta zuzendaria (†), Jesus Ibañez, Nazario Armendia (†), Manolo Zengotita, Alfonso Lodoso, Antonio Garcilandia (†), Antonio Azpiazu (†), ezezaguna, gernikar bat eta Antonio Unzueta.**

Bigarren ilaran makurtuta: **Sabin Beristain, Bittor Arrizabalaga, Roberto Mata, Felix Retolaza, Karmelo Loiola, Jose M. Igartua (†), Manu Konde (umea), Imanol Konde eta Felix Lodoso.** Aurrean eserita: **gernikar bat, Angel M. Beristain, Sabin Beristain, Anton Garcilandia, Benito Saez (†), J. Ignacio Saez eta Jabi Saez.**



*Trinitate jai zoriontsuak!*

## Gabi

**JATETXEA**

- GOSARIAK •
- PINTXOAK •

Despedidak, ospakizunak

MENU BEREZIAK  
MENU TRADIZIONALAK

Nafarroa enparantza - Tel 74 12 30

## ■ Akuarela ikastaroa Egur Tailerraren eskutik

Egur Tailerrak akuarela ikastaroa antolatatu du Udalaren laguntzaz ekainaren 10etik 28ra bitartean. Pintura-teknika honen gora-beherak ikasi nahi dituztenak egunero, arratsaldeko 6etatik 8ak arte, dute izena emateko aukera Egur Tailerraren egoitzan.

## ■ Txankakuako kuadroak

Maiatzaren 17an, notario aurrean zozketatu zuen Txankakuak Egur tailerreko koadroak. Sarituak hauexek izan dira: M. Jesus Sahagun (1. saria), Pepita Goenaga (2. saria) eta Antonia Gabilondo (3. saria). Sari banaketa datorren astean izango da.

## ■ UEUrako laguntzak

Udako Euskal Unibertsitateak XXIV. Udako Ikastaroak egingo ditu uztailean, Baionan uztailearen 1etik 6ra bitartean eta Iruñean uztailearen 15etik 27ra. Elgoibarko Udalak ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko dirulaguntza emango die, beka gisa, langabetu eta ikasleei. Matrikula epea ekainaren 21ean amaituko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzura zuzendu (Nafarroa Plaza 3) edo 74 43 66 zenbakira deitu.



AITOR ZABALA

**Mintxeta Atletismo Taldeak** antolatutako atletismo jaialdia burutu zen joan den larunbatean Mintxetako Udal Atletismo pistan. Goizeko 9etatik eguerdiko 12,30ak arte, OHOkoko 3. mailatik 8era bitarteko 125 bat haurrek hartu zuten parte eskolarteko jokoei amaiera emateko antolatu ziren lasterketetan. Haurrak honako lasterketa hauetan aritu ziren: 60m., 80m., 100m, 200m., 300m., 600m., 800m., luzera eta altura jauziak. Atletismo jaialdiaren antolakuntzan Ego-Tokiko kideek lagundu zuten.

## ■ San Bartolome jaiak antolatzeko bilera

San Bartolome jaietako egitarauaren prestakuntzan herritarren partaidetza bultzatu nahian, Udaleko Kultura Zerbitzuak herriko kolektibo, kuadrila eta norbanakoei dei egiten die jaiak antolatzeko egingo diren bilera-tara. Lehen bilera ekainaren 1ean, larunbata, egingo da, eguerdiko 12etan Kultur Etxean.

## ■ AEKanpadarako autobusa

Asteburuan zehar, maiatzaren 1a, ekainaren 2 eta 3a bitartean, Dimako herrian "Egunero euskal kultura egiten eta bizitzen" lemapean burutuko da AEKk antolatzen duen AEKanpada. Euskaltzale guztiei Dimara joateko gonbitea luzatzeaz bat, Elgoibarko AEKk txartelak salgai dituela jakinarazi nahi du Plaza Txikiko euskaltegian.

**Aterpe**  
TABERNA

Lagunarteko  
afarietarako leku  
aproposa

*Ondo pasa Trinitateak!*

San Roke auzoa 5. ☎ 74 25 95



• Eramateko  
**OILASKO ERREAK**  
• Hobe aurrez



**karkizano**


San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

*Arrieta*

San Bartolome 18  
☎ 74 08 49

## Atxutxiamaika Begirale Taldeak

Udalaren laguntzaz burutu duen "Larunbatero" egitas-moa amaitu berri da. 10 larunbat izan dira guztira, LHko bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren mailako 41 haurren partaidetzarekin. Egin dituzten ekintzen artean hauexek aipa daitezke: Errekarte baserrira bisita, San Lorentzo erreka-errekaren garbiketa, eskulanak, jolasak, etab. Udazken aldera, "Larunbatero" berriz jarriko da martxan. Bitartean, uda osoan zehar, Udaleku Irekien txanda izango da.



AZKUE

**Musikeskolako Dantza Eskolako** 6 eta 11 urte bitarteko ikasleek "Ikasleak" izeneko saioa eskaini zuten asteartean. Hiru saiok osatzen dute dantza eskolako ikasturte amaierako jaialdia. Bigarren ikuskizuna datoren asteartean izango da, hilak 4. 12 eta 15 urteko ikasleek "Lamiak" izeneko saioa taularatuko dute. Azkenik, ekainaren 8an, larunbata, Euskal Dantza saioak emango dio bukaera ikasturte amaierako jaialdiari. Ikuskizuna Plaza Handian izango da arratsaldeko 6etan.

## Ikastolako BBBkoak eta ONCEko txapelketa

ONCEko antzerki gidioen lehiaketan Gipuzkoako Txapeldun izan ziren Ikastolako BBBleko Iker Zuriarrain, Gonzalo Solas, Jon Zubiaurre eta Ander Ansuategik, Bilbon izan den fase autonomikoan parte hartu zuten eta 3. postua lortu. Elgoibartarren lana bederatzi talderen artean hirugarren onena izan zen. Oraingoan agenda elektronikoa jaso du taldekide bakoitzak sari modura eta Ikastolarentzako saria hezkuntz erreformari buruzko liburu bilduma bat izan da.

## ESOk irakasleen aurkezpena Institutuan

Elgoibarko Herri Institutuak ESOk lehen zikloan klaseak emango dituzten irakasleen bileran antolatuta du ekainaren 3rako, astelehena, irakasleen aurkezpen moduko bat egiteko asmoarekin. Arratsaldeko 7etan Arreiturre Institutuko aretoan izango den bileran 96/97 ikasturtearen funtzionamenduari buruzko hainbat xehetasun emango dira. Bilerarako ateak irekita daude adin horretako ikasleak dituzten guraso guztientzat, nahiz eta prematrikula egin gabe izan.

## Sanmigeldarren eguna ekainaren 16an

Sanmigeldarrek auzotarren eguna ospatuko dute ekainaren 16an. Aurten auzoko eskolako irakasle izandako Jesusa Garaialde, Antonia Gurrutxaga eta Antonia Ansola omenduko dituzte. Ekainaren 16ko ekitaldiak mezarekin hasiko dira auzoko elizan goizeko 11,30etan. Egunean zehar beste ekin-tzarik ere egongo da: San Migeleko III. Banakako Esku Pilota Txapelketa-ren azken partidua, Pello Arrieta historialariaren hitzaldia eskolari buruz, bazkaria eta Zabaleta eta Imanol trikitilariekin erromeria. Bazkarirako txartelak ekainaren 9a baino lehen eskura daitezke 2.800 pta.ren truke Armueta harategian, Kalamua elkartearen edo Jabier Arrizabalagarekin harremanetan jarritik. Batzorde antolatzaileak ikasle ohiak parte hartzera animatu nahi ditu, topaketa gune aproposa izango delakoan.

## Aparkaleku arazoak tanborrada egunetan

Ekainaren 1ean, larunbata, eta ekainaren 2an, igandea, izango diren nagusien eta haurren tanborrada dela-eta, Santa Ana kalean eta Correos aurrean ezingo da autorik aparkatu. Antonio Arrillaga kalean, berriz, autoak baterian laga beharrean, ilaran aparkatu beharko dira. 30 bat autoren lekua libre utzi beharko denez, hauek Andikanon aparkatu ahal izango dira.

# oskorri

25. urteurrena  
**KANTALDI BEREZIA**  
25 KANTU ONENEKIN

**ELGOIBARREN**  
Ekainaren 14an, ostirala  
**HERRIKO ANTZOKIAN**  
**Gaueko 10,30etan**

AITA SEMEAK  
FURRA-FURRA  
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ  
ENE MAITE KATTALIN  
TIRAUKI  
GAZTELUGATXE  
BIOLETAREN MARTXA  
LANTZEKO IHAUTERIAK

...



ANTOLATZAILEA:  
Elgoibarko Izarra K.E.

LAGUNTZAILEAK:  
Euskadi Irratia - Elgoibarko Udala - Gipuzkoako Foru Aldundia



## Bittor Alberdi "Patxillo"

### Igeltseroa



- Zer estaliko zenuke tonelada bat igeltsuz? ▶ Miseria.
- Zure bizitza berreraikitzeo aukera bazenu? ▶ Oingua modukua eingo nuke, igual-iguala.
- Zeren aurrean altxatuko zenuke horma? ▶ Zentral nuklearren aurrrian.
- Baldosaz baldosa noraino joan nahi zenuke? ▶ Oso urrutira ez, Euskal Herri inguruan geratuko nitzake.
- Zeri irekiko zenioke atea? ▶ Laguntasunari.
- Elgoibarko teilatuetatik behera begiratzean, zer ikusten da? ▶ Kaliak eta pertsonak, oso normala da dana.
- Zein asmakizunek du balorerik handiena zuretzat? ▶ Telefonua izan da oso inportantia.
- Zure izaeratik zer leundu beharko litzateke? ▶ Jenixua.
- Eta zerbait gogortzekotan? ▶ "Zorrerixia".
- Zein pribilegio izan nahi zenuke? ▶ Oingo bizitzakin pribilegiatua sentitzen naiz.
- Aitortzeko moduko "biziorik"? ▶ Aitortzeko modukorik ez.
- Erantzunik gabeko galdera bat? ▶ Sekula ez dot ulertu zelan sortzen dian pertsonak.
- Zure burua definitu beharko bazenu? ▶ Beti aurrera egiten daban pertsona naiz, sekula atzera begiratu gabe.
- Opor lasai batzuk ala gau desenfrenatu bat? ▶ Opor lasaiaxak.
- Jatordu bat? Eta janari bat? ▶ Bazkaltzeko, arroza.
- Maitatzea ala maitatua izatea? ▶ Bixak.
- Alergiarik? ▶ Bai, polenari eta hautsari.
- Barre algara ala irrifarrea? ▶ Irrifarria errezo urtetzen jata.
- Zein abildade izan nahi zenuke? ▶ Tronpetia ganoraz jotzia.
- Agurtzeko era bat? ▶ Bueno, gero arte.

## BERE AUTOGRAFOA LORTU NAHI DUT

**DOINUA:** Pasaiaiko plazatik

Bertsolari hauxe da oso atsegina eta bere izena da Andoni Egaña abesteko orduan du ahots bikaina saria irabazteko dauka dohaina.

Azkenean lortu dut bere autografoa eta orain poz-pozik etxera nijoa ez dut inoiz galduko eskuratutakoa eta beti bezala naiz zorte onekoa.

(Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan aipamen berezia jasotako bertsoak)



ONETS OSORO



ZURE HAURARENTZAKO  
PRODUKTUEN BANATZAILEA  
EUSKAL HERRIAN:

- Kotxeak eta sehaskak

# BAMBINO

Estazio kalea 3  
☎ 10 69 93  
EIBAR

DURANGO: ☎ 681 14 83 / 620 35 72 - BILBO: ☎ 444 71 04

**BODA ERREPORTAIK**

foto

azkue

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

## Luis Mari Iriondo:

# "Gerente lana oso interesgarrixa da batzutan"

**65 urte bete berri ditu Luis Mari Iriondok. 13 urteko mutil koskorra besterik ez zela, pintxe hasi zen lanean eta orain gutxi jubilatu da, Arrasateko Udalean Polikiroldegiko eta Zaharren Egoitzako gerente izan eta gero. Musikazale amorratua, txistularia, klarinetea**

**jo zuen Bandan eta etxean organo txiki bat ere badu. Ikastolaren bultzatzaileetarikoa izan zen. Halere, bere afiziorik maitatuena, irakurketa da. Liburuak, egunkariak eta eskuetan hartzen duen gutzia irakurri eta egunez egun gauzak ikastea.**

**- Umetan zer izan nahi zenuen?**

- Akordatzen naiz zela lagun batzuk musikarako afizio demasa zakagun. Orkestako direktore izango ginala esaten gendun jolasian.

**- Baina 13 urterekin lanera.**


- Bai, pintxe hasi nitzan. Penia eman zian eskolia laga eta buzua jartziak baina...

**- Halere, gerente izatera iritsi zinen.**

- Bai. Nahiz eta lanian hasi beti egon izan naiz ikasten, lan ordutik kanpo. Señorita Anitakin ikasi naban, "Artes y oficios" izeneko eskolan ere ibili nitzan Bernardo Eceñarro maisu zala... Azken honetan nauala etorri jatan errekaua Sigmako delinea-ziora juteko eta gero ACMera jun nitzan, tekniko bezela lelengo eta grupo horretako tailer bateko gerente geruago. Sasoi horretan ein naban korrespondentziaz "Master en direccion de empresas", formaziua gehixo kompletatzeko.

**- Gerente lana oso gustuko izan duzu, ez?**

- Danera jota bai. Lanian momentu txarrak pasau ditxut baina onak



**"Umetan gar txiki bat sartu zien. Ordutik curiosidade itzala euki izan dot beti danetik jakitzeko"**

ere bai, batez ere Arrasaten. Bat izan laike mundu honetan espezialistia tailarrian, salmentetan, erosketetan, kirolian... Gerentia generalistia da, danetik piskat. Zela edo hala espezialista horiek koordinatzia neretzako oso interesgarrixa da. 30 urtekin gerentzia deskubritzia gauza haundixa izan zan.

**- 11 urtez Arrasaten.**

- Bai. Gure enpresan krisixa zauan 84an eta beti pentsatzen zeozer ein bihar

nabala familixia aurrera ataratzeko. Egun baten egunkarixan anuntzio bat ikusi zaban andriak, Arrasateko Udalian fundazio publiko baten gerentia bihar zala esaten. Suertia euki eta neu hartu ninduen.

**- Polikiroldegia eta Zaharren egoitza zuzendu dituzu.**

- Bai, gauza bixak. Ixa azkenerarte egon naiz fundazio bixekin baina lana geruau eta haundixau zalako Arrasateko Udalak

beste gerente bat aukeratu zaban Polikiroldegirako, Ramon Jauregi elgoibartarra. Ordutik Egoitzan bakarrik egon naiz.

**- Nola hartu duzu jubila-zioa?**

- Ondiok astian behin juten naiz Arrasatera. Gainera, Kilometroak-eko ekonomia batzordian eta Parrokixako obretan burubelarri nabil.

**- Zerbait egitea da kontua.**

- Bai, beti pentsau izan dot ahal doten neurrian nahiko nukela batzorderen baten lan eitxia eta, hori bai, irakurri eta musika entzutia ahal dan gehixen.

**- Atzera begira, zer izan da garrantzitsuena?**


- Lelengo familixia aurrera etaratzia. Ostantzian, euskeraren aldeko lana, musikia eta irakurketia. Horretxek izan dia neretzako gauzarik inportantienak..

**- Zure burua definitu.**

- Jakinmina, beti euki izan dot curiosidadia. Umia nitzala nik uste dot gar txiki bat sartu ziela eta danetik jakitzeko curiosidade itzala piztu jatan. Jakitziakin disfrutatzen dot, dana da deskubrimientua. Zeozen bila nabil beti.

# Bai, nahi dut

*Zuk ere ba al daukazu ezkontzarik aurten? Badirudi aspaldian bikote gehienek ezkontzeko erabakia hartu dutela. Ez dakigu moda kontua den ala bene-benetan ustez erdi-galduta zeuden hainbat halore itzultzen ari diren. Kontua da, azken urteotan ezkontzen den bikote kopuruak gora egin duela. Gonbidatuak, menua, jantziak, eraztunak, despedida... Horiek eta beste asko dira ezkontza baten hueltan kontuan hartu beharrekoak. Datozen orrietan nolabaiteko argibideak eman eta dagoeneko ezkontuta dauden hiru bikoteren esperientziak azaldu nahi izan ditugu. Bitxikeria bat jakin nahi? Ba al zenekien jatorriz tarta ezkongaietara aurpegira botatzen zitzaizela?*



**ARANTZAZU**

Edergintza

San Inazio 4, - Tel. 74 27 25

**Biak**

ileapaindegia

San Inazio 4, - Tel. 74 27 25

**DARDARA**

Solarium etxea

Errosario, 25  
☎ 74 21 82

**ELENA**

ileapaindegia

San Franzisko 49-1 · Tel. 74 11 89

**FADEK**

ileapaindegia

Errosario 35 - ☎ 74 26 92

**Garbiñe**

EDERGINTZA

P.M. Urruzuno 27 - Tel: 74 31 32

**IDAMA**

ILEAPAINDEGIA

Santa Ana, 7 - Tel. 74 40 26

**ITZALA**

Edergintza

San Franzisko, 49 - 1 esk.  
Tel. 74 43 03

**JOSE ANTONIO**

ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30 - Tel. 74 14 92

**XABIER**

ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 13 - Tel. 74 19 97

# Egunik EDERRRENA profesionalen esku!!



**Kide**  
ILEAPAINDEGIA

☎ 74 00 69  
San Franzisko, 40 3 - B

Maria Urizar

ileapaindegia

Errosario 9-1 ☎ 74 44 89

**NAHIA**

ILEAPAINDEGIA

Azpilgoeta, 16 - Mendaro  
Tel. 75 51 01

**NIEVA**  
ILEAPAINDEGIA

San Franzisko, 9  
Tel. 74 04 96

**Richi**

ileapaindegia

Errosario 6 - 1 · Tel. 74 30 11

**Sidney**

ILEAPAINDEGIA

San Franzisko 26-1 · Tel. 74 09 51

ILEAPAINDEGIA  
solariuma

Kalamua, 2 - Tel. 74 43 57

**E**zkontza, hiztegiko definizioaren arabera "bi per-tsonak elkarbiztza egiteko asmoz hi-tzarmenez egindako elkarte" da. Bikote batek, elkarrekin bizitzen hasi aurretik "kontratu" moduko bat sinatzeko erabakia hartzen du. Kristau erlijioan zazpi sakramentuetako bat da eta zeremonia dotore baten bidez, ezkongaiak Jaungoikoaren aurrean beraien maitasuna agertzen dute. Ezkontza zibila "epailearen edo legezko funtzionari eta lekukoaren aurrean adostasuna agertuz eta gero erregistro zibilean inskribatuz egiten dena" da. Arrazoi ezberdinengatik erabaki dezake bikote batek elizaz ala zibilez ezkontzea. Aspaldian, ordea, gehienek bide erlijiosoak aukera-tzen dute.

### Jatetxea bi urte lehenago

Bikote batek ezkontzea erabaki-tzen duen momentuan demaseko montajea gauzatu behar izaten du. Lehenengo lana, eta zailena, jatetxea aukeratzeko da. Eguraldi onaren bila edo errenta aitortpena bikoteak egiteak suposatzen duen abantaila kontuan hartuta, bikote askok udaberri eta udara aukeratzeko du. Ondorioz, maiatzaren 1 eta 15 urria

bitarteko datarik gehienak dexente denbora aurretik enkargatu behar izaten dira. Batzuetan, Elgoibar inguruko jatetxerik estimatuenetan egin nahi dutenek ezkontza jatordua, gu-txienez urtebete lehenago deitu behar dute, eta askotan baita bi urte aurretik ere. Tokiaren arabera finkatzen da, beraz, ezkontza data ere. Hortik aurrera, gonbidatuen zerrenda osatu behar da, txartelak enkargatu eta bidali egin behar dira soinekoa aukeratu, aurpegira ondo egiten duen orrazkera eta makilaia pentsatu, eraztunak erosi, musikariekin hitzegin, eztei bidaiaren nondik norakoak zehaztu....

### Negozioa ote?

Horrek guztiak, noski, gastua suposatzen du. Jatetxeetako menuak 6.500-10.000 pta. bitartean daude, musikariak kontratazea 60.000 pta. inguru ateratzen da, eraztunak 15.000 pta., soinekoa eta senargaiaren trajea 200.000 pta. inguru, eztei bidaiak 500.000 pta. eta abar. Gaur egun, gainera, argazkiak ezezik, bideo erreportaia ere nahi izaten du bikoteak, hartara, ezkontzari buruzko oroigarria album-ean izateaz gain, irudi eta soinuen bidez ere izateko asmoz.

biak egiteko 170.000 pta. gehitu behar zaizkio aurrekontuari. Lorak, gonbidapenak, opariak.... Gutxi

bidaiaren asko eta asko Donostiara joaten zen lehen aldiz euren bizitzan eta sekula ez lukete imagi-

## Zein da ezkontza baten kostua?

### EZKONGAIENA

■ Jantziak:	Senargaiarena .....	75.000 pta
	Emaztegaiarena .....	100.000-200.000
■ Ileapaindegiak .....		15.000 pta.
■ Lorak (Erramua + eliza + kotxea) .....		30.000-70.000 pta.
■ Eraztunak .....		15.000 pta.
■ Gonbidapenak .....		15.000 pta.
■ Argazkiak eta bideoa .....		170.000 pta.
■ Menua (150 gonbidatu) .....		975.000 pta.
■ Puroak .....		40.000 pta.
■ Opariak .....		40.000 pta.
■ Musikariak .....		60.000 pta.
■ Bidaia .....		500.000 pta.

**GUZTIRA .....** **2.035.000 pta.**  
(azpitik jota eta BEZA gehitu gabe)

### GONBIDATUENA

■ Jantziak .....	30.000-50.000 pta.
■ Ileapaindegia .....	5.000 pta.
■ Oparia edo dirua (banaka) .....	15.000 pta.

**GUZTIRA .....** **50.000 pta.**

gora-behera, eta 150 gonbidatu inguruko ezkontza eredu-tzat hartuz, goitik behera kopuruak zenbatu eta 2.000.000 pta.ra iritsi daiteke ezkontzaren aurrekontu osoa.

Bikote batzuek zortea izan eta gurasoek bazkaria ordaintzen diete. Dena dela, hala izan ala ez, kontua da, gonbidatu bakoitzak batzuetan 15.000 pta. inguru ematen dituela. Horri esker, gastu guztiak ordaintzeko ateratzen da, eztei-bidai barne. Beraz, negozioa ez bada ere, gutxienez parra egiteko beste-ko dirua jasotzen da. Baldin eta menu izugarri ona, soinekorik garestiena eta eraztunik ederrenak erosten ez badira, noski.


### Aldaketak

Aiton-amonon garaiko ezkontzak oso bestelakoak izan ohi ziren. Haiek ez zuten, ez, arazorik izaten jatetxea aukeratzeko orduan. Menua berezia bai, baina ez zen egungo mariskorik jaten. Eta soineko zuria baino, beltza nagusitzen zen. Eztei-

natu ere egingo noizbait hauen bilobek Mexiko edo Kenia aldera joko zutenik ezkonberritan. Bat edo batek argazkirik ere ez du izango, seguruena, oroitza-pen guztiak oroimenean gordez. Orduko gastuek ez zuten zerikusirik gaur egungo kopuru erraldoiekin eta lagunartea ere ez zen, ez eta gu-txiago ere, 150 izaten, nahiz eta familia ugaria izan.

### Ezkon-gaua

Bere misterioa du. Edo zuen behintzat. Lehen ezkongaiak ezkon-gauera arte birjinak izaten ziren. Jasotako heziketa erlijiosoak hala eraginda, pekatua zen ezkontu aurretik inorekin ohera-tzea. Hortaz, bikoteek musu bat edo beste, zenbait igurtziz egin eta, Jaungoikoaren begietara senar-emazte izendatu arte ez zuten beste ezer egiten. Ezkontza gaua berezia izaten zen, onerako edo txarrerako. Batek edo bestek susturik jasoko zuen eta inoren-tzat gau ederra izango zen. Batek daki! Gaur egun, aldiz, era-



Horiek

inguru ematen dituela. Horri esker, gastu guztiak ordaintzeko ateratzen da, eztei-bidai barne. Beraz, negozioa ez bada ere, gutxienez parra egiteko beste-ko dirua jasotzen da. Baldin eta menu izugarri ona, soinekorik garestiena eta eratzunik ederrenak erosten ez badira, noski.

### Aldaketak

Aiton-amonen garaiko ezkontzak oso bestelakoak izan ohi ziren. Haiek ez zuten, ez, arazorik izaten jatatxea aukeratzeko orduan. Menua berezia bai, baina ez zen egungo maris- korik jaten. Eta soineko zuria baino, beltza nagusit- zen zen. Eztei-bidaian asko eta asko Donostiara joaten zen lehen aldiz euren bizit- zan eta sekula ez lukete imaginatu ere egingo noiz- bait hauen bilobek Mexiko edo Kenia aldera joko zutenik ezkonberri- tan. Bat edo  
b a t e k  
argaz-

kirik ere ez du izango, seguruena, oroitzapen guz- tiak oroimenean gordez. Orduko gastuek ez zuten zerikusirik gaur egungo kopuru erraldoiekin eta lagunartea ere ez zen, ez eta gu-txiago ere, 150 izaten, nahiz eta familia ugaria izan.

### Ezkon-gaua

Bere misterioa du. Edo zuen behintzat. Lehen ezkongaiak ezkon- gauera arte birjinak izaten ziren. Jasotako heziketa erlijioso- ak hala eraginda, pekatua zen ezkondu aurretik ino- rekin ohera-tzea. Hortaz, bikoteek musu bat edo beste, zenbait igurtziz egin eta, Jaungoikoaren begietara senar-emazte izendatu arte ez zuten beste ezer egiten. Ezkontza gaua berezia izaten zen, onerako edo txarrerako. Batek edo bestek susturik jasoko zuen eta inoren-tzat gau ederra izango zen. Batek  
d a k i !  
Gaur egun, aldiz, e r a b a t  
a l d a t u  
d a  
z e n t -  
z u a .



d a r i  
f r a n t -  
s e z

Izan e r e , ezkondu aurretik harreman sexualak izatea gauzarik normalena da eta oso gutxi dira ezkondu arte zain ego- ten direnak. Onerako edo txarrerako izan den? Hori bakoitzak erabakitzen du.

### Ezkontza tarta

Ezkontzan gauza asko dira bereziak. Horien arte- an baita tarta ere. Ezkonbe- rriek tarta mozten duten momentua magikoa da eta sinbolismoz betea dago. Orain urte asko, tarta emaztegaritari botatzea zen ohitura, ume asko izango zituela esan nahi zuelarik. Usadio hau pastelero erro- matar ba-tzuk hasi zuten, ordura arteko gari aleen orde- z, pastelito txiki bat- zuk jaurtiz. Tarta ezkonbe- rrien buru gainerik bota eta hauek zatitxo bat jan behar izaten zuten. XVII. mende- an Ingalaterran pastelitoak, gailetak eta opilak pila- tzeko ohitura zegoen. Bikotea tontor gainean besarkatu behar zen. Zen- bat eta tontor handiagoa lortu orduan eta zorionta- sun handiagoa bikotearent- zat. 1660 urte aldera sukal-

batek gaileta eta opi- lez eginda- ko tontor haien orde- z, zenbait pisutako tarta sortu zuen. Egun eza- gutzen ditugun ezkontza tartak.

### Despedidak

Jatorriz, despedida ezkongaiak lagunekin egi- ten zuten, haiek ez baitzi- ren ezkontzara joaten. Gaur egun batzuetan hiru eta lau ere izaten dira egin beharreko despedidak. Kuadrilakoekin, bikotearen koadrilako bikoteekin, lanekoekin.... Eta ohi denez, horietan juergak ikutu berezia behar du izan. Tarta erotikoak direla, pikardiaz beteriko opa- riak.... Edozerk balio du "soltero" bizitza utzi eta ezkontzari hasiera eman aurretik egiten den afarian.

Ezkontzea ez da broma. Eskerrak behin ezkondu eta "betirako" den !

# ostarku

## PROFESIONALAK

Ez itxaron gehiago!

Enkarga ezazu

dagoeneko

zure

ezkontza

erreportaia.



ARGAZKI-ERREPORTAIK  
KALITATE DIGITALA DUTEN  
BIDEO ERREPORTAIK

Santa ana, 5 - ELGOIBAR - Tel. (943) 74 06 46

## ❖ Zubia jatetxea ❖

Berezitasunak : Arraina eta haragia erreta eta bildotsa

- ❖ EZKONTZAK
- ❖ BATAIOAK
- ❖ JAUNARTZEAK
- ❖ DESPEDIDAK
- ❖ EGUNEROKO MENUAK
- ❖ BILERETARAKO MENU BEREZIAK
- ❖ ETAB.



Bainuetxe zumardia, 2- Tel. 74 05 13. **ALTZOLA-ELGOIBAR**

# MUNDO NOVIAS

K/ Arrasate, 38 - Tel. (943) 42 63 27 - 20005 DONOSTIA




**- Zer da Mundo Novias bereizten duena?**

- Mundo Novias-ek oraingo eta betiko moda dauka, goi-joskintza prezio onean. Bere gustu eta kalitate-agatik ezaguna den diseinu ederra. Andregai mimatzen dugu berezia senti dadin, eta gauza bera egiten dugu amabitxiarekin,

amarekin eta abizpekin, egun handia eta pozgarria baita sendiarentzat.

**- Zein da aurtengo joera andregaien artean?**

- Andregai bakoitzak bere ametsetako soinekoa izan dezan auke-berera zabala daukagu, beti ere, puntako profesionalen aholkuarekin.



**- Zer garrantzi dute konplementoek? Zer aurkitu dezakegu Mundo Novias-en?**

- Irudia ez da soinekoa bakarrik, osagarriak gehitu behar zaizkio; mesede egingo dion ile orrazkerak lagunduta. Horretarako ere hemen gaituzu, zuretzako bakarrik diren osagarriekin, beti ere, andregaiaren soinekoa, orrazkera eta estiloa aintzakotzat hartuz.

**- Oraindik ere zurial da nagusi soinekoen artean?**

- Azken urteotan zuriak marfilari eman dio txanda, azken hau tonu epela delarik.

**- Zein puntutaraino komeni da andregaiaren eta senargaiaren jatzera bat etortzea?**

- Oso garrantzistua da bikotearen artean harmonia gordetzea, eta hau gainontzeko gonbidatuen artera zabalitzea, bere osotasunean egun majikoa izan dadin ezkonberrientzat.



Andregai eta senitartekoen zain ilusioz beterik egongo gara.


**Zorionak opa dizkizuegu  
1996eko andregaiari.**



# MIMOX

San Frantzisko 19 - Tel. 74 42 13 - ELGOIBAR

*Gu arduratuko gara  
egun berezi hau apaintzeaz.  
Beti ere, zure gustua eta  
aurrekontua kontuan hartuz.*



## Ezkongaiantzako OPARIAK

ALTZARI  
AUXILIARRAK



EDREDOIAK  
**GORRANO**



LANPARA BAT  
**URZELAI**

BRONTZEKO  
GUARNIZIOA

*Argi*



JANTZITAKO  
MAHAIA  
**Beti Argi**


# KAI

## JATETXE

250 pertsonarentzako lekua  
Betiko sukaldea eta giro jatorra  
Eguneroko eta astebukaerako menuak eta karta



Madalena auzoa, 4 - Tel. 60 33 44 / 60 41 34 - MUTRIKU



## CORTE BLANCO senargaiak

Senargaiak, aita-besoetakoak eta laguntzaileak jazen espezialistak.

Trajeak, smoking-ak eta chaqué-ak.

Osagarriak (zapatak, alkandorak, gorbatak eta akzesorioak)

Triunfo kalea, 3 - DONOSTIA - Tel. 46 40 91

# Eta ezkondu egin ginen

MARIA PEREZ eta ADOLFO MARTIN:

**"12 urte elkarrekin bizi eta gero erabaki genuen ezkontzea"**

- Otsailaren 10ean ezkondu zineten zibilez.

- Bai. Gutako bakoitza orain 20 urte ezkondu zen elizaz. Harreman haiek ez ziren ondo joan, banatu eta denbora gutxira ezagutu ginen. Elkarrekin bizitzen hasi ginen, seme bat izan genuen...

- Eta 12 urtera ezkondu egin zarete. Zergatik?

- Batez ere legalki gauzak bere batean izan eta biotako norbaiti zerbait gertatuz gero, gauzak ondo gera daitezten.

- Oraingoan semeak egon ziren zuen ezkontzan.

- Bai, oso polita izan zen. Gainera, guk ezer jakin gabe, eskolakoekin etorri eta flautarekin "martxa nupziala" jo ziguten... Oso emozionantea izan zen, lehenengo aldia

baino gehiago!

- Zer suposatu du zuentzat ezkontzeak?

- Ezer berezirik ez. 12 urte eta gero nahiko ondo ezagutzen dugu elkar, ezkontzeak ez du aurrerapauso bat suposatu, gure bizitza ez da horregatik aldatu. Hori bai, ezkontzari esker bi asteko oporrak izan genituen guretzat bakarrik. Kanariar irletan izan ginen.

- Garestia atera al zaizue?

- Aurrekoa beste ez. Familia elkartu eta Txurrukan bazkaldu genuen. Musikorik ez genuen eraman baina lagun batek soinua eraman eta demaseko dantzaldia izan genuen. Guztira arropak, bazkaria eta bidaiaria 800.000 pta. inguruko gastua izan zen.

- Oraingoan ez zinen zuriz jantziko.



- Ez, traje batez.

Egun berezia zen bai eta arropa ere, baina ez elizaz ezkondu ginenean beste.

- Halere egun berezia izan zen.

- Bai. Ez geunden hain urduri eta guretzat bikotea ez zen inondik inora berria, elkarbizitza asko ezagutzen dugu... Baina eguna berezia izan zen.

- Zuen esperientziak zertarako, balio izan

du?

- Behar bada kontura-tzeko zeinen garrantzitsua den ezkondu aurretik bikotea elkarrekin bizi-tzea. Egunez egun asko ezagutu dugu elkar eta denborak aurrera egin ahala gauzak beti aldatu daitezkeen arren, pauso hori eman aurretik, edozeini gomendatuko genioke aurretik elkarrekin bizitzeko esperientzia izatea.

*Utzi zure ezkontza gonbidapenak benetako profesionalen eskuetan*

**Imprenta Arrillaga**

DISEINUA - FOTOKONPOSIZIOA - ETIKETAK, CARPETAK ETA KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK - TIPOGRAFIA - OFFSET

Trenbide, 13 behe - ELGOIBAR - ☎ 74 01 87 FAXA: 74 27 40

**DEBAPE**  
INPRIMATEGIA  
komunikazio grafikoa

• DISEINU GRAFIKOA • OFFSET LITOGRAFIA • FOTOKONPOSIZIOA  
• PUBLIZITATE DISEINUA • ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Olaso industrialdea, 27 • Tel.: 74 40 58 • Faxa: 74 41 78 • ELGOIBAR



## LADISLAO IÑIGUEZ eta PILAR ZABALETA "Lau urte eta gero, desiatzen geunden batera eitxeko lo"

### - 50 urte ezkontuta.

- Bai, 1945eko urriaren 31n ezkontu ginen. Azarua hilabete tristia zala eta, hildakuen hilia, urrian ezkontu ginen. Aurretik 4 urte ibili ginen nobixo.

### - Bakoitzarentzat lehen eta azken nobioa?

- Gure gazte denboran lagunak izaten zian eta gu 1941eko San Bartolome Txiki egunian hasi ginan, Ladisek leengo neri eskatu zian etxera laguntzia eta nik ezetz. Gero, beste batekin zixela ikusi eta orduan neretzat nahi izan naban.

### - Eta lehenengo musua?

- Handik urtebetera!

### - San Antolineko ermitan ezkontu zineten.

- Bai, hiru hilabete lehen pentsatu eta kitxo, Don Batis apaizak ezkontu gintxun. Ladis traje elegante batekin eta ni traje urdin ilun batekin. Orduan zuriz ez zian asko ezkontzen.

### - Bazkaria Alzolan, ez?

- Bai, Naparkua jate-xian, taxi batian jun ginan.

Menutik gauza bakarraz akordatzen naiz, paellia! 25 lagun inguru elkartu ginan, familixakuak eta bizilagunak tartian. Dantzarik ez zan egon, ez musikorik ez ezer, txatxara ederra, hori bai!

### - Eta zazpiretan trena hartu eta Donostiara.

- Bai, beteta zixen trena eta plataforman jun ginan, bata bestiari pegau-pegau einda, gaberako berotzen. Hotelian porrupatatak eman ziguten afaltzeko, eta arraultza frijitxuak! Gero Madrilen, Valentzian eta Bartzelonan izan ginan.

### - Ezkontza gaua, ilusioz?

- Bai, lau urte eta gero lotsarik ez zakaun batera ohera juteko biluzik. Desiatzen nobixuakin lo eitxeko! Politxa izan zan.

### - Orain gauza bera egingo al zenuten?

- Oin igual ezkontu ere ez ginan eingo. Elkarrekin bizi eta kitxo. Oin, hori bai, hiru seme-alaba eta bederatz biloba zoragarri ditxugu, horrek bai merezi dabela!

## MIRARI LIZUNDIA eta FERNANDO RODRIGUEZ: "San Bartolome parrokixan tradizioz ezkontu ginan"

### - Maiatzaren 4an ezkontu zineten.

- Bai, pentsauta geneukan eta fetxa hori libre zauanez...

### - Badirudi jendea elizaz ezkontzen hasi dela.

- Bai, aspaldixan jende asko ari da ezkontzen elizaz. Guk ere argi geneukan, fediagatik. San Bartolome parrokixan ezkontu ginan tradizioz, nere familixan danak ezkontu dia hor eta, amama, ama...

### - 180 gonbidatu. Ez al da asko?

- Konturatu gabe azkenian jende pila bat elkartzen da. Lagunak bakarrik 50 zian, familixan parte bakoitzetik beste horrenbeste...

### - Superstizioak ere badira.

- Bai, belarritxakuak laga ein zien, soinekua berrixa zan eta liga urdin bat erregalatu zien. Fernandok ez nindun ikusi elizara ailegau arte.

### - Ezkontza negozioa al da?

- Parra urtetzen da. Guk suertia euki gendun ze, bazkarixa Fernandon gurasuek ordaindu zeben, baina bestela ere parra urtetzen da.

### - Zure bizitzako egunik politena izan al zen?

- Izan leike, oin arte ez jata gauza gehixegi pasau eta.. Neretzat zoragarrixa izan zan, oso ondo pasau naban. Fernando oso nerbioso egon zan, egun guztixa serixo-serixo.

### - Eztei-bidaia non?

- Lehenengo astebete Geronan, ahizparen etxean eta gero beste astebete kruzeroa mediterraneoan.

### - Orain dator zailena.

- Bai, bizimodua aldatu ein jaku asko eta elkarbizitza ez da batere erretza.



# GAZTELU

Soineko berriak  
eta bigarren  
eskukoak

AMABITXIAK  
JAUNARTZEAK



Neurrira egindako lanetan  
profesionalak gara.

Legarre behea, 9 - EIBAR - Tel. 10 81 59




Poligono ondoan, (herri bukaeran) · Tel. 19 93 70 · ITZIAR

- ▶ 150 pertsonarentzako lekua
- ▶ Jaunartze eta ospakizun bereziak
- ▶ Eguneroko menuak
- ▶ Etxeko postreak
- ▶ Berezitasuna: parrilan egindakoak

## **EZKONBERRIAK eta ZILARREZKO EZTEIAK**



**EE.UU.  
MEXICO  
GUATEMALA  
COSTA RICA  
THAILANDIA  
REP. DOMINICANA  
INDIA/NEPAL  
INDONESIA  
ITSAS-BIDAIAK**



# **kantabria**

## **Jatetxea**

Arrate (EIBAR)  
Tel: 12 12 62  
12 73 34



### **EZKONTZETARAKO LEKU APROPOSA**

- 200 pertsonarentzako lekua
- Eguneroko menua eta ospakizunak
- Bataioak - Jaunartzeak - Despedidak
- Sukaldaritza tradizionala
- Koktela eta giro jatorra

## Altzolako Andonagi dorretxea

- Altzolan kokatzen zen, ibaiaren eskuin aldean. Gaur egun oraindik ere mantentzen dira zimenduak Deba ibaian sartuta. Dorretxea bota zenean, Ituarte hotela eta Leokadia pentsioa ere desagertu egin ziren 1953. urtean saihets-bidea eraikitzeko. Andonaegi dorretxea, egun autobus geltokia dagoen tokian zegoen.
- Oinplano karratuko etxe sendoa zen, teilatua lau isurkitara zuelarik. Behekoaz gain, beste bi solairu eta ganbara zituen. Harlangaitzez eraikia, eskantzuetan eta baoguneen inguruan harlandua erabili zen.
- Aurre aldeko fatxadan, baoguneak hiru ardatzen inguruan zuden ordenatuak. Beheko solairuan baogune bakarra egon zen, sarrerako atea. Harlanduzko eta ataburu zabaleko ate dinteldua zen. Albo bietan dauden leiho

dintelduak ordukoak dira eta ez zuten goiko solairuetako baoguneen iritzi berdina mantentzen.

- Lehenengo solairuan badirudi erdiko baogunean aldaketa eman zela, hasieran leihoa zena balkoi bihurtuz eta burdin forjatuz itxiz. Lehenengo eta bigarren solairuko eta ganbarako leiho guztiek leiho-barrena edo alfeizar bana dute, ganbarakoak besteak baino txikiagoak izanik.

- Eskuin aldeko fatxadan ere denboraren poderioz zenbait aldaketa izan ziren baina atzean daiteke planteamendua desberdina zela.

- Etxeak lau eskantzuen goi partean garitoiak zituen eta lau hormei amaiera erlaiza irten batez ematen zitzaion. Lau isurkitako teilatua erlaiza honetatik plano desberdineko tarte batez zegoen.

PELLO ARRIETA



## Felix Gabilondo Arakistain (1918-1995)



- 1918an jaio zen Azkarate baserrian. Gaztetan kalera jaitsi zen, hala ere ez zuen kontaktua galdu baserriarekin.
- 17 urterekin delineazioa ikastera joan zen Donostiara. Arrasate kalean bizi izan zen, izeba Paulinaren etxean, haren "kuttuna" zelarik. Hala ere, urtero hutsik egin gabe, abuztuaren 24an Elgoibarrera etortzen zen jaietara.
- Soldaduzka eta gero, Delaunet lan-tegian hasi zen lanean. Han ezagutu zuen bere emaztea, M. Dolores Uribe-salgo.
- Delineazio ikasketei probetxua ateratzearren, bi urte egin zituen Madril-en Pedro Muguruza arkitektoarekin hirigintza lanetan.
- Madriletik bueltan, hainbat arkitektoarekin (Bidagor, Llanos...) egin zuen lan Diputazioko plan urbanistikoetan.
- Jubilatuta zegoen arren, Intxaurrendoren hirigintza prozesuan lagundu zuen, hango Auzokideen Elkarteko kide baitzen. 1993an, hiritar bikainari domina eman zion Donostiako Udalak.
- 1995ean hil zen.



*Maiatzaren 19an, 39 urte zituela, hil zen ANGEL JAVIER ODRIOZOLA MONJEren sendiak bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana. Era berean, ekainaren 3tik 7ra bitartean bere aldeko errosarioa eta meza izango direla Parrokian gogorarazi nahi dizuegu.*



## MOTZAK

### Haundiren porrota eta nesken garaipena

Play-off-aren lehenpartidua aldats gora egin zaio Haundiari. Etxean jokatzeko zuten lehen partidua irabaztea garrantzitsua izan arren eta une batean gol bateko errentaz irabazten bazijoan ere, azkenean 4 eta 2 galdu zuen Haundiak.

Asteburuan Zaragozaren aurka jokatu du haien zelaian eta garaipena lortzea zaila bada ere, etxean galdutako puntuak berreskuratzen saiatu beharko dira. Klub Deportiboko neskek, berriz, ondo baino hobeto dabilta Liga Vascako Kopan. Izan ere, Zumaiaren kontrako partiduan 6 eta 1 irabazi zuten elgoibartarrek eta finalerdietarako sailkatzea lortu dute.

### Diapositiba emanaldia eta Mendi Itzulia

Datorren domekan, hilak 9, Elgoibarko Mendi Itzulia izango da Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta. Ohi denez, egun osoko ibilaldia egingo dute mendizaleek Elgoibar osoa mendirik mendi zeharkatuz. Goizeko 6,30etan Plazatik aterako dira Karakate aldera. Handik aurrerako lekuak Hirukurutzeta, Urnabitza, Altzola, Bioin, San Migel, Morkaiko, Kalamua eta azkenik, Elgoibar izango dira. Bestetik, datorren ostiralean, hilak 7, Himalayari buruzko diapositiba emanaldia izango da Kultur Etxean gaueko 10etatik aurrera.



Nicolas Jiménez:

### “Karatea autokontrola da, ez borroka”


■ **Gipuzkoako txapelduna zara karatean.** - Bai, txapelketa bikoitza izan zen: kumite eta kata. Kumite edo borrokan Gipuzkoako txapeldun geratu nintzen. Borroka bat da baina kolpeak kontrolatuz. Ahalik eta puntuazio gehien lortu behar da baina kolpea ematera iristen bazara puntuak kentzen dizkizute.

■ **Nola lortzen dira puntu gehien?** - Lepoa eta gerria bitartean nahiko gogor eman daitezke kolpeak, dianak deitzen dira, eta horiek dute puntuaziorik altuena. Aurpegian kolpea ematen baduzu oso ondo kontrolatutako kolpea izan behar du, bestela, markatu bakarrik egin daiteke. Eta hauez gain, behe aldeko “barridoak” daude.

■ **Kata-n txapeldunordea zara.** - Kata edo teknika. 30etik gora geunden. Lehen errondan 7,7 puntu eman zidaten, 8 izanik puntuaziorik altuena. Hurrengo fasean Heian Sandan deitzen dena egin nuen eta 8koa eman zidaten. Bigarren geratu nintzen eta lehenengoa nigandik hamarreneko bakar batera.

■ **Lehen aldiz txapelketa batean eta gainera, irabazi.**

- Erridikulua egin behar nuela pentsatzen joan nintzen. 16 eta 18 urte bitartekoan txapelketa zen eta ni gainera gazteena



nintzen. Gerrikoetan berdea eta urdina zutenak zeuden, azken hauen artean askok marroia zuten arren; eta nik, berriz, berdea baino ez. Hau guztiagatik txapelketa aurretik askotan errepikatu nituen egin behar nituen ariketak eta azkenean uste baino hobeto atera zen.

■ **Honek aurrera egiteko indarra emango dizu.** - Bai, gerriko urdina aterako dut. Gerriko bat lortzeko kata bat ikasi behar duzu. Honez gain, lizentziak ere eduki behar dira eta gerriko beltza ateratzeko lau lizentzia ateratu behar dira, bata bestearen atzetik.

■ **Noiz arte?** - Kasse maisu japoniarraren eredia jarraitu nahiko nuke. 9. dana dauka eta harrigarria da zenbat dakien.

■ **Karate tradizionalaren bide-tik?** - Karate tradizionala ez da

borroka. Kolpeak nola eman dakizun arren, autokontrolan dago giltza. Karate konpetitiboa, aldiz, asko urruntzen da tradizio-tik. Konpetizioa ez zait asko interesatzen, nire maila ikusteko balio izan dit.

• Adina: 16  
• Beste arte martzial bat: Lehen Taekwondo.  
• Mugimendu eraginkorrena? Segurtasun distantzia gordetzea, eta bestela, sabelean ostikada ematea



- PASTELAK - PASTAK - BONBOIAK
- TARTA BEREZIAK
- ENKARGUAK HARTZEN DITUGU

San Frantzisko, 49 behea. ☎ 74 28 75 ELGOIBAR

*Ezkontza opariak*





# Ikastolako neskek Gipuzkoako txapela lortu dute eskubaloian



**S**an Bartolome ikastolako Ikas-Dodotis taldeak Gipuzkoako Eskubaloia Txapelketako finalerdiak eta finalak jokatu zituen joan den asteburuan Erreneriako kiroldegian. Emaitza ezin hobea izan zen, Ikastolakoek Gipuzkoako txapelkunak izan baitziren. Zapatuan Zumaiako ikastolakoek kontra 14 eta 10 irabazi zuten. Hortaz, igandeko finalerako sailkatzea lortu zuten. Finala Erreneriako Orereta ikastolakoek aurka jokatu zuten eta 7 eta 6ko emaitzaz amaitu zen partida, bentaja elgoibartarren aldekoa izanik. Behin Gipuzkoako txapela eskuratu ondoren, asteburuan Gas-

teizen izango den Euskadiko eskubaloia txapelketan parte hartzeko aukera izango dute. Zorionak eta zorte on!

Talde osatzen dutenak, zutik, ezkerretik hasita: Erika Etxabe, Olatz Beitia, Maddalen Bergara, Estitxu Astigarraga, Ane Garmendia, Susana Alves, Ane Etxeberria, Oihana Apellaniz eta Itziar Gerrikabeitia.

Makurtuta, Joseba Galarraga entrenatzailea, Anahi de la Cruz, Lur Izagirre, Ainhoa Viñaras, Izaskun Sarriugarte, Leire Rodriguez, Andrea Iriondo eta Naiara Martin. Kristina Etxeberria falta da.

## Eskolarteko jokoan sari banaketa larunbatean

Bihar, larunbata, hilak 1, eskolarteko jokoan sari banaketa ekitaldia izango da Mintxetan eguerdiko 12etatik aurrera. Benjamin kategorian urtean zehar parte hartu duten haur guztiak saritxo bat jasoko dute. Gainontzeko kategorietan, alebin eta infantiletan, saskibaloia, futbol eta eskubaloia txapelketetan irabazleak izan diren taldeei sariak banatuko zaizkie.

## Autobabeserako ikastaroa

Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Larrialdietarako Zuzendaritzak OMIC edo Kontsumitzaileen Bulegoetako erabiltzaileentzat Autobabeserako ikastaroa antolatu du. Nor bere segurtatea areagotzeko interesa duen edonork har dezake parte ikastaroan. Helburua etxeko istripuak gutxitzea eta hauen larritasuna ahalik eta txikiena izatea da. Taldeak 25 lagunekoa izango dira gehienez. Ikastaroa erabat doan izango da, Jaurlaritzak, Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioak eta EUDELeK ordaintutakoa baita. Ikastaroan parte hartu nahi duten guztiak Merkatu Plazako Kontsumo bulegora joan daitezke xehetasun gehiago eskuratzeko, astelehenetik ostiralera, goizeko 9etatik 1era bitartean.




Esozia auzoa z/g - ☎ 75 10 01 - SORALUZE

## ESoZiA JATETXEA

*Ospakizun berezietarako toki aproposena.*

*Zugandik oso gertu!*



## MOTZAK

### "Egi", Euskadiko txapelketan


Jabier Arriola "Egi"-k, ekainaren 2an Mallabian izango den Euskadiko Harrijasotzaileen txapelketan parte hartuko du honako harri eta pisu hauekin: 150 kiloko errektangularra, 125ko zilindroa, 112,5ko kubi-koa eta 100ko bola. Txapelketan Euskadiko zortzi harrijasotzaile onenak arituko dira lehian, tartean Zelai txapelduna eta Izeta txapeldunordea. "Egi" sasoi oso onean dago eta hirugarren postua lortzeko aukerarik badauka baldin eta lana fin betetzen badu. Horrela jarraituz gero, datozen bi-hiru urteetan lortuko du Jabier Arriolak goi-goian egotea.

### Ehiza txakurren erakusketa Albitxurin

La Unión Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatuta, ehiza-txakurrak txoriak ehizatzen ikusteko aukera izango da larunbatean, ekainak 1, goizeko 9etatik aurrera. "Trinitate Saria" izeneko erakusketa-txapelketa Albitxuriko zelaian izango da. Txapelketa amaitu bezain pronto txakur onenek sariak jasoko dituzte.

### Ibai Klubeko Taekwondo taldeak

Gipuzkoako Taekwondoko lehen Txapelketa Absolutuan parte hartu zuen joan den igandean Donostiako Jose Antonio Gasca Kiroldegian. Arte martzial honetako Federazioa sortu eta egituratu gabe egon da oraintsu arte, klub gutxi zirelako kirol honetan parte hartzen zutenak. Ibai Kluba, beste klub batzuek baino esperientzia gutxiagorekin aurkeztu zen txapelketara; hala ere, nabarmen aritu ziren Ibaiko neska-mutilak. Josune Altuna Ibaiko Taekwondo irakasleak Gipuzkoako Txapeldun absolutua izatea lortu zuen, ez baitzuen bere gainetik zegoen areririk izan. Roberto



Rubiok brontzezko domina irabazi zuen eta bi emaitza hauekin Elgoibarko Ibai Kluba hirugarren lekuan geratu zen klub sailkapenean. Emaitza hauei esker, Elgoibarko taekwondozaleek Euskadiko txapelketan parte hartzeko aukera izango dute.

### Mintxetako Futbol Txapelketaren 2. edizioa

Udal Kirol Patronatuak Mintxetako II. Futbol txapelketa antolatu du ekainaren 22tik uztailaren 21era bitartean. Iaz jokatu zen lehen aldiz txapelketa hau eta guztira 18 taldek eman zuen izena. Futbol-7 izeneko erara jokatu dira partiduak, hau da, zelai erdia bakarrik erabiliz. Izena emateko epea irekita dago ekainaren 18ra arte. Zeregin honetarako Kultur Etxera edo Mintxetara deitu (74 44 15/74 43 15).

**HERRI-GAIN  
ERRETEGIA**

San Pedro auzoa 4  
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR



## ESKORIATZAKO MAGISTERIO ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

**1996-97 ikasturterako  
aurreinskripzio-epea zabalik dagoela.**

Heziketa arloan espezialitate erreglatuak ezezik hainbat eginkizun bete ahal izateko ere oinarritzko formakuntza eskaintzen du karrera honek: hala eskoletan, nola eskalduntze munduan, iharduera soziokulturetan.

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA - 20540 ESKORIATZA  
☎ (943) 71 41 57

## Nagusien eta haurren tanborrada Trinitateetan

**T**rinitate jaiak ospatuko dira asteburuan eta dagoeneko dena dago prest tanborrak eta barririk kaleetan protagonista bihurtzeko. Entsaus eta prestaketa guztien ostean, 100 bat lagun larunbat gauz aterako dira Musika Bandak joko dituen Tatiago, Diana, Iriyarena, Polka eta Donostiako martxaren



Larunbatean nagusien tanborrada, eta igandean, haurrena.

erritmora. Aurrean, frantsesen zuzendaria joango da eta segidan frantses tropak. Ondoren Udal Musika Banda kokatuko da eta hauen atzetik sukaldarien zuzendaria eta sukaldari taldea. Azkenik, oilasko eta txanpain botilez beteriko karroak itxiko du komitiba. Haurren tanborrada, berriz, domeka eguerdian izango da. Aurtentzen Musikeskolako haurrek bakarrik hartuko dute parte tanborradan, lehen aldiz Gazteen Bandak lagundurik.

### Bestelako ekitaldiak

Gaur hilak, 31, zezen mekaniko txapelketa izango da Madalako parkean. Lehen eta bigarren sarituek 5.000 eta 4.000 pta.ko sariak jasoko dituzte hurre-

nez hurren, eta lehen sei sailkatuek 2.000 pta. Bihar, ekainak 1, larunbata, besteak beste, kuadrilek bazkaria egingo dute Arkaitz eta Oier trikitalariek. Arratsaldeko 4etan xake partidak jokatuko dira eta 6etan haurrentzako pailazoak izango dira Plaza Handian. Tanborradaren ostean, gauerdiko 12etan edo, Jose Ripiau eta Baldin Bada taldeen kontzertua izango da Madalan. Igandean, ekainak 2, orain arte San Anton jaietan burutzen zen artisautza feria izango da Leku-Ederren. Arratsaldeko 6,30etan Gelatxorekin dantzaldia izango da Plazan eta 8etan Ñaco Goñy and Armonica Project taldearekin eskutik kontzertua Madalako parkean.

## Ondarroa, Ziezo, Baltierra eta Elgoibarko banden alardea

Kilometroak ekitaldien barruan, datorren igandean, hilak 9, Euskal Herriko lau banda ezberdinen alardea antolatu du Kilometroen Batzorde antolatzaileak. Ziezo, Ondarroa eta Baltierrako bandei lagunduz, gure herriko Udal Musika Bandak joko du. Goizeko 10etan kalejira egingo dute kaleetan zehar. Eguerdiko 12,30etan kontzertua hasiko da Plaza Handian lau banden eskutik. Euria egingo balu emanaldia Olaizaga kiroldegian izango litzateke. Pablo Gallego, Jabier Ituarte, Jose Antonio Morella eta Jose Antonio Osoro zuzendarien ardurapean honako obra hauek joko dituzte: "Arraunlariak", "Hirugarren kalez kale", "Garijo", "Celedon", "Emon Emon", "De San Prudencio a la Blanca", "Elgoibarko kaleetatik", "Jota" eta "Agur Jaunak".

# HEMENDIK

## BODEGA

AFARI MERKEAK

Gure berezitasunak:

- Kazuelatxoak
- Olagarroa
- Haragia erreta

*Ondo pasa  
Trinitateak!*

Pedro Muguruza 20. Tel. 74 25 00

ELGOIBAR

*Ametza*

KAFETEGIA

*Ondo pasa  
Trinitate jaiak!*

San Inazio, 2  
☎ 74 27 22  
ELGOIBAR

# "diskua, romantikua da batez ere"

# ZIGOR GARZIKI

Joan den urteko urrian jo zuen lehen aldiz jendeaurrean, Azkoitiko Baztartxo antzokian. Ekitaldia eta gero, IZ disketxeko ordezkari bat joan zitzaion froga bat egiteko aukera eskainiz. Gustatu eta aurrera, maketa beharrean, zuzenean diska grabatu du. Asteazkenean izan zen aurkezpena eta diskoa salgai dago.

**- Opari ona izan zenuen iaz urtebetetze egunean, ez?**

- Bai, egun hortan lelengo aldiz jo naban jendian aurrian Azkoitxin eta amaitxu nabanian IZ-kua etorri jatan gustau ein jakola esaten eta aber nahi naban prueba bat eixia. Oin diskua kaliao dao.

**- 14 abestiz osatutako diska da.**

- Bai, aho soinua eta gitarriaz gain, pianua eta organua ditxu. Gustora geratu naiz, abestixak oso konpletuak dia. Letreri inportantzia eman diuet, entzuteko letrak dia.

**- Disko nostalgikoa, ez?**

- Nostalgikua edo romantikua. Nere inguruko gaixak agertzen dia, nik bizi ditxutenak, nere gauzak, jendian gauzak, soziedadiak...

**- Kantautoreen protesta abestien linea jarraitzen duzu, beraz?**

- Hori ere badao behintzat. Abesti batzuk oso golpe haundixa ematen dabe, baina batez ere maita-

sunari buruzko letrak dia.

**- Bob Dylan-ekiko identifikazioa nahita bilatu al duzu?**

- Ez, nahitxa ez. Hola urtetzen jata, ni holakua naiz eta ez jata axola. Jendia hasi zanian Dylan-ekin konparatzen neretzat inportantia izan zan, ez naban holakorik espero. Nik gustatzen jatana eitxen dot, horrek esan nahi badau Dylan-en


tzen da, nekatu eitxen zera mordo bat. Musikiak dedi-kaziua eskatzen dau, danera ezin zera ailegau.

**- Abesti batek dionez "Euskal Herrian musikak ez du dirurik ematen".**

- Zaila da baina ni musikatik bizi naiz momentuz. Nola edo hala baina moldatzen naiz.

**- Kritiken beldurrik?**

- Ontxe esango dizut



antza dakatela, ba bale.

**- Hasten zaude. Edozer egiteko prest?**

- Inundik inora. Esaten dabe "sekula" hitza ez dala erabili bihar baina nik garbi dakat beti jarraitxuko dotela nere linea.

**- Zure kontzertuetara zein jende joaten da?**

- Konturatu naiz danetik etortzen dala. Momentu konkretuetan entzuteko musikia da eta edozeini gustatzeko modukua.

**- Lana laga duzu.**

- Bai, gauza bixekin ezin naban. Bata edo bestia aukeratu bihar eta... Gainera, kontzertuetan asko erre-

zelako kritikak jasoko ditxuten: batzuk barre egingo dabe, beste batzuk Bob Dylan dala pentsatuko dabe hasieran euskeraz kantatzen dabala konturatu arte, asko gustatuko zaie beste batzuri, kaka zaharra irudituko zaiotnik izango da, izarririk ez dela jaio esango du norbaitek... Danerako.

**- Zu behintzat gustura.**

- Bai. Pikua hartu eta zuloa egiten hasten ez denak ez du sekula bidea

## Garajeak

- ❖ Marradun garaje bat alokatzen da pista beltzean.  
☎ 74 01 77
- ❖ Garaje bat saltzen da King-Kongen.  
☎ 76 17 95
- ❖ Marradun garajea alokatzen da Urasandin.  
☎ 74 31 07
- ❖ Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. zenbakian.  
☎ 74 13 77
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut Santa Ana kalean.  
☎ 74 21 21

## Lana

- ❖ ILEAPAINZAILA BAT behar dut.  
☎ 74 09 02 (goizez) **Kristina**
- ❖ UMEAK ZAINDUKO nituzke ekaina eta uztailean zehar. ☎ 74 34 99
- ❖ Pertsona nagusiak zaindu edo sukaldean pintxe lanak egiteko prest nago.  
☎ 74 36 38 **Arrate**
- ❖ Tailer batean KONTROL NUMERIKOAN lan egiteko pertsona bat behar da. Esperientzia eta planoak interpretatzen jakitea baloratuko da. ☎ 74 36 84

❖ PERTSONA NAGUSIAK ZAINDU eta konpainia egiteko prest nago.  
☎ 74 33 19 **Maria**

❖ HAURRAK edo PERTSONA NAGUSIAK zainduko nituzke. Esperientzia daukat.  
☎ 74 20 24 **M. Angeles**

## Etxebizitzak

❖ Pisu bat salgai. Berritua. Ubitarte 3, 3D.  
☎ 74 34 86 (7etatik aurrera)

❖ Etxebizitza alokatzen dut JAKAN UDAn.  
☎ 74 15 22

❖ Etxebizitza SALGAI BERNARDO EZENARRO kalean.  
☎ 36 17 18 **Amaia (gauez)**

❖ ERROSARIO 28an pisu bat saltzen dut.  
☎ 74 13 77

❖ ETXE BAT ALOKATU nahi nuke Elgoibar edo Deban.  
☎ 74 05 62

❖ Errosario kalean PISU BAT ALOKATZEN DA.  
☎ 74 09 74

❖ BUNGALOW bat alokatzen dut urte osorako, abuztua izan ezik, SANTA POLAN.  
☎ 74 12 13 **Carmen**

## Salerosketak

❖ GAY-HOTSA aldizkaria Eibarko Hilbera tabernan salgai.

❖ ORDENADORE BAT saltzen dut. 486 DX2-66. 8 MB RAM, teklatura eta arratoia. 80.000 pta.  
☎ 19 28 53 / (908) 77 53 67  
**Ramon**

❖ KOTXE SILLA egiten den kotxe kapota bat saltzen dut. ARRUE Lord. Merke.  
☎ 74 00 16

❖ MOUNTAIN BIKE bizikleta berria saltzen dut.  
☎ 74 30 30

❖ JIMSON Elite sport 49cc motorra salgai. Oso prezio onean.  
☎ 74 21 40

## Bestelakoak

❖ Donostian bizi eta Egoibarren lan egiten duen eta kotxez bide hau egiten duen pertsona bat behar dut. Gastuak erdibana ditzakegu. **Richard**.  
☎ 74 02 36 astegunak  
☎ 42 84 06 astebukaerak

❖ BI BIZIKLETA dauzka emateko Caritasek.  
☎ 74 15 09 / 74 12 57

## Agurrak

❖ Zorionak tia IDOIAri maiatzaren 31n urteak betetzen dituelako. Itsaso eta Iñigoren partez.

❖ Esther eta Izaskunen partez zorionak MONIKARI zure 13. urtebetzeagatik.

❖ IKAS BELTZ eta IKAS GORRIri animoak eta ea irabazten duten. Aupa neskek!

❖ Gorantziak 6. mailako mutilei. Neska batzuen partez.

❖ Zorionak AMAIA ZUBIAURRERI hilaren 30ean 12 urte bete zituelako. Loinaz eta Maria Jesusen partez.

❖ Zorionak ITZIAR ALDALURRI bere lagun Ainhoa eta Ane Arrillagaren partez.

❖ Zorionak MILARI gidatzeko baimena atera duelako. Lagunen partez.

❖ Zorionak MARIA SASIAINI kuadrilaren partez 21 urte bete zituelako maiatzaren 27an.

❖ Zorionak JUANTXORI gaur, maiatzaren 31, 33 urte betetzen dituelako. Nerea, Mainer eta Ruben.

❖ Zorionak RUBENI maiatzaren 30an 9 urte bete zituelako bere lehengusin Nerea eta Mainerren partez.

❖ Zorionak SARA GURRU-TXAGARI maiatzaren 27an bere urtebetzea izan zelako. Lara Urain.



## Gosariak - Pintxoak Eguneroko Menua Karta

*Zatoz gure sukaldaritza  
tradizionala dastatzera*

*Ondo pasa Trinitateak!*

Santa Ana, 10 - Tel. 74 05 80  
ELHGOIBAR

## OSTIRALA

**19,00 HERRI ESKOLAKO JAIALDIA**

✓ Herriko Antzokian

**22,15 ZINEA:** "Toy Story"

## 1 LARUNBATA

**12,00 S. BARTOLOMEETAKO JAIK ANTOLATZEKO BILERA**

✓ Kultur Etxean

**19,30-22,15 ZINEA:** "Toy Story"

## 2 IGANDEA

**16,30-19,30-22,15 ZINEA:** "Toy Story"

## 3 ASTELEHENA

**19,00 ESO-ko IRAKASLEEN AURKEZPEN-BILERA**

✓ Arreiturre Institutuko aretoan

**22,15 ZINEA:** "Toy Story"

## 4 ASTEARTEA

**19,30 DANTZA ESKOLAKOEN SAIOA**

Izenburua: "Lamiak"

✓ Herriko Antzokian

**22,00 ZINEA:** "Toy Story"

## 6 OSTEGUNA

**9,30 OSASUN JAIA**

✓ Mintxetan

Antolatzaileak: Osasunkume, Udala eta OHOKo ikastetxeak.

## 7 OSTIRALA

**22,00 DIAPOSITIBA EMANALDIA**

Gaia: Himalaya

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

**22,15 ZINEA**

"Pena de muerte"

## Trinitate jaiak

**Ostirala, 31**

**23,00 Zezen mekaniko txapelketa** Arkaitz eta Oier trikitilariak alaituta. (Sariak: 5.000 pta. lehenengoari, 4.000 bigarrenari eta 2.000 pta. lehen sei sailkatuei.)

**Larunbata, 1**

**09,00 Ehiza Txakurren erakusketa.** "Trinitate" saria Albitxurin.

**14,00 Kuadrilen bazkaria** Plaza Handian trikitilariak alaituta.

**16,00 XIII. Xake Txapelketa** Kultur Etxean.

**18,00 Azkona pailazoen ekitaldia** Plaza Handian.

**22,30 Tanborrada.**

**24,00 Jose Ripiau eta Baldin Bada** taldeen kontzertua.

**Igandea, 2**

**TRINITATE EGUNA**

**09,00 Udal Txistularien Diana.**

**10,00 III. Xake Txapelketa** Azkarra adin guztientzat. Kultur Etxean.

**11,00 Meza Nagusia.**

**11,00 Artisautza feria** Leku-Ederreko parkean.

**12,00 Musikaeskolako Haurren Tanborrada** Plaza Handian

**16,30 Buruhandien kalejira.**

**18,30 Gelatxorekin dantzaldia** Plaza Handian.

**20,00 Naco Goñy and Armonica** Project Madalako parkean.

## txandak

### FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
1, larunbata:	Bidasolo	Etxeberría
2, igandea:	Bidasolo	Zabaleta
3, astelehena:	Yudego	Yudego
4, asteartea:	Yudego	Yudego
5, asteazkena:	Yudego	Yudego
6, osteguna:	Yudego	Yudego
7, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

### OKINDEGIA:

2, igandea: ZABALETA

## ZineA



### Toy Story

**Zuzendaria:**  
John Lasseter.

Irudimen handiko mutikoa da Andy.

Honen jostailu faboritua

Woody izeneko bakeroa da. Baina egun batean berrikuntza guztiak dituen astronauta bat, Buzz izeneko, ekarriko du Andyk etxera. Woody asko minduko da astronauta berria baita orain Andyren begikoa. Woody-k astronautaren aurkako borroka hasiko du baina ez zaio hain erraza izango astronauta paretik kentzea. Pelikula honen zuzendariak Oscar berezi bat jaso zuen ekarpen teknologikoengatik. Guzti-ira 400 maketa eta 11.064 fotograma erabili ziren.



● Inazio Bereziartua Musikeskola ●  
Solfeoa, Korala, Instrumentuak, Dantza eta Musika Tailerra (5-6 urte)

**MATRIKULA ZABALIK**

■ IZEN-EMATEA: ekainaren 3tik 14ra  
■ ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera 5etatik 8etara  
INFORMAZIO GEHIAGO: Aita Agirre plaza 3 - 1 Tel. 74 21 45

# SALEGI

Jantoki berrituak  
50, 100, eta 250 pertsonarentzako jantokiak  
Menu pertsonalizatuak  
Koktel eta argazkietarako jardun aproposa  
Parking-a





# OTZARRETA

## RESTORANTEA

### LURRAZPIKO PARKING-etik ZUZENEAN JANGELARA

Ezkontza eta banketeetan espezializatua, enpresa-bilera, konbentzio, kongresu, familiarterako ospakizun eta gaujaietarako azpiegitura egokia.



*250 pertsonarentzat kabida duen jangela aterrazatua kanpora zabal daiteke, era guztietako banketeak ospatzeko toki bikaina izanik. Bidrieraz estalitako errotonda eta guzti, leku pribilegiatua da edozein gertakizunentzat. Horrez gain, landare ugariz osatutako baso txiki hau, luntxetarako gunee ideala da.*

ST. KLARA, 5 - ZARAUTZ - GIPUZKOA  
Tel. (943) 13 40 95 - 13 12 43